ERRENTERIAKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

Azaroak 25eko adierazpen instituzionala Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta

Azaroak 25 - Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, euskal udalok, gizarte gisa interpelatzen gaituen hausnarketa bat helarazi nahi diegu herritarrei. Emakumeen aurkako indarkeriak jarraitzen du izaten gizarte osoari eragiten dion giza eskubideen urraketa bat. Errotik desagerraraziko badugu, konpromisoa hartu behar dugu erakundeek, gizarte-erakundeek eta baita gure komunitatea osatzen dugun pertsonetako bakoitzak ere.

Horregatik, azaroaren 25 honetan, dei egiten dugu gaitzespenetik harago begiratu eta nork bere buruari galdetzeko zein den gure zeregina errealitate horren aurrean: Non gaude emakume batek laguntza behar duenean? Non gaude emakumeak iraintzen, kontrolatzen edo gutxiesten dituzten portaerak ikusten ditugunean? Non gaude isiltasunak, axolagabekeriak edo normalizazioak desberdintasuna eta indarkeria betikotzen laguntzen dutenean? Non gaude gure sare sozialen bidez irudi edo mezu misoginoak iristen zaizkigunean?

Emakumeen aurkako Indarkeria matxistarik gabeko gizartea eraikitzeko, inplikazio aktiboa behar da, egunero. Ez da nahikoa indarkeria arbuiatzea argi eta garbi agertzen denean. Beharrezkoa da errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzea, indarkeriari eusten dioten jokabideak zalantzan jartzea, isiltasuna haustea diskurtso misoginoen aurrean eta negazionismoari aurre egitea, biktimei laguntzea eta, esparru guztietatik, indarkeria matxistarik gabeko inguruneak sortzen laguntzea.

Indarkeria matxistaren aurrean ez dago jokabide neutralik; ez begiratzeak, ez erreakzionatzeak edo isilik geratzeak ere baditu ondorioak. Horregatik, herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu pauso bat ematera aurrera: entzun, lagundu eta sostengatzera; interesa agertzera; emakumeen aurkako edozein indarkeria mota prebenitzeko eta eragozteko jardutera.

Udalok, herritarrengandik hurbilen gauden erakundeak izanik, gure udalerrietako auzokide guztien konpromiso partekatua sustatu nahi dugu, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren edozein adierazpenen aurrean jarduteko. Herritarrak gonbidatzen ditugu jarrera bat hartzera eta konponbidean parte izatera, erantzukizun pertsonaletik eta kolektibotik abiatuta. Horrela bakarrik egin ahal izango dugu aurrera gizarte bidezkoago, berdinzaleago eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko baterantz.

Horregatik, Errenteriako Udalak honako jarduera hauek egiteko edo egiten jarraitzeko

konpromisoa hartu du:

• Indarkeria matxistaren forma guztien aurrean herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak garatzea.

• Indarkeria matxistako kasuen aurrean, herritarrek egiten dituzten salaketak eta alertak bideratzea, eta egoera bakoitzean erantzun egokiak aktibatzea.

• Haur eta nerabeei zuzendutako hezkidetza programak garatzea, berdintasunean hezten eta indarkeria matxista prebenitzen laguntzeko.

• Hezkuntza komunitatean eragiten jarraitzea, haur, gazte eta nerabeei zuzendutako formazioa eskainiz, egunero hainbat arlotan jasotzen dituzten mezu misoginoak, emakumeen aurkako mezu bortitzak eta berdintasunaren aurkakoak desaktibatzeko.

• Haur eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta haren aurrean esku hartzeko esparru protokoloa indartzea

• Errenteriako III. Berdintasun Planean «indarkeria matxistarik gabeko bizitzak» ardatzean onartutako ekintza plana garatzen jarraitzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak arreta prozesu osoaren erdigunean jartzeko helburuarekin.

• Errenteriako emakumeen aurkako indarkeriaren memoria historikoa osatzen jarraitzea.

• Emakumeen Etxeak eskaintzen dituen bitartekoetan sakontzen jarraitzea, hartara erreferentziazko gune izaten jarrai dezan —ikastaro, gogoetarako espazio zein zerbitzuen bidez— indarkeria pairatzen duten emakumeen harrera, arreta eta ahalduntzerako.

• Indarkeria gaien lanketan herriko mugimendu feministarekin elkarlanean jardutea.

Era berean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, mugimendu feministak Errenterian antolatuko dituen mobilizazioetan parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak, emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien aurrean gaitzespena modu aktiboan adierazteko.